

# Indarkeria matxistak: prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea

Euskal Administrazio Publikoko  
langileentzako prestakuntza plana

Azken txostena



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

CIP. Biblioteca Universitaria

**Indarkeria** matxistak [Recurso electrónico]: prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea : Euskal Administrazio Publikoko langileentzako prestakuntza plana : azken txostena / [zuzendaria, Leire Imaz Zubiaur ; Idoia Fernández Fernández ...(et al.)] – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea: PDF (45 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

En la cub.: UPV/EHU e IVAP.

ISBN: 978-84-1319-507-0.

1. Mujeres – Violencia con. 2. Personal – Formación – País Vasco. 3. Administración pública.  
I. Imaz Zubiaur, Leire, dir. II. Fernández Fernández, Idoia.

(0.034) 364.63-055.2

(0.034)37:35.08(460.15)

## Zuzendaria

**Leire Imaz Zubiaur.** Zuzenbide Zibila eta Enpresa Zuzenbideko Saila. «Pertsona, familia eta Ondarea» talde kontsolidatuko ikertzailea.

## Plana diseinatu, garatu eta ebaluatzeko taldea

**Idoia Fernández Fernández, y Alba Madinabeitia Ezkurra.** Hezkuntza Zientzien Saila. IkaGura talde kontsolidatuko ikertzaileak.

**Susan Orbe Mandaluniz.** Metodo kuantitaboen Saila. Bilbao Research Team in Economics, BiRTE talde kontsolidatuko ikertzailea.

## Bulego teknikoa

**Garazi Arraibi Larrea.** Ikertzaile Kontratatua. Zuzenbide Zibila eta Enpresa Zuzenbideko Saila.

ISBNa: 978-84-1319-507-0

Diseinua eta ilustrazioak: **Belén Moreno Zaldibar**

## AURKIBIDEA

1. Aurkezpena .....	2
2. Testuinguru orokorra .....	5
3. Emaidza orokorrak .....	8
4. Ondorioak .....	11
5. Eranskina. Bereizitako txostenak .....	14
<b>Oinarrizko maila:</b>	
1. Hezkidetza: indarkeriaren prebentziorako eta esku-hartzeko oinarriak .....	15
2. Emakumeen aurkako indakeriako oinarrizko ikastaroa .....	22
<b>Espezializazio maila:</b>	
3. Emakumeen aurkako indarkeria: esku-hartze integrala eta sareko lana .....	30




# Aurkezpena



2020ko abenduan, hitzarmen bat sinatu zen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) artean. Hitzarmen horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitatearen esku utzi zen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako prestakuntza-estrategia bat diseinatu eta garatzea, bai eta haur eta nerabeen aurkako sexu-abusuak prebenitu eta artatzea ere. Enkargu horren arrazoia 2020ko Aurrekontuen Legea da, arlo horretako langile publikoen prestakuntzarako partida espezifiko bat jasotzen baitzuen. Eusko Legebiltzarrak, beraz, IVAPi helarazi zion zeregin hori, ulertu baitzuen hura gauzatzeak barnean hartzen zuela indarkeria matxisten eta hauren aurkako sexu-abusuen arloko bi prestakuntza plan diseinatzea eta garatzea.

Urte eta erdi baino gehiagoko lanaren ondoren, aipatutako bi planak diseinatu eta gauzatu, erakundeen enkargu honek emaitza orokor hauek lortu ditu:



1. GRAFIKOA. IVAP eta UPV/EHUren arteko Hitzarmeneko datu orokorrak

Ikus daitekeenez, irismen luzeko estrategia bat izan da, eta egiaztatu da sektore publikoko 2220 profesionalak 72.815 orduko benetako prestakuntza izan dutela; aurrekaririk ez duen prestakuntza intentsiboko ekimena EAEn.

Enkarguak bi plan independente egitea ezartzen zuenez, emaitzen analisia egiterakoan irizpide horri eustea erabaki dugu. Gauzak horrela, txosten honetan Euskal Administrazio Publikoko profesionalak zuzendutako *Indarkeria matxistak: prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea* izeneko prestakuntza-planaren azken balantzea aurkeztuko dugu. Plan hori 2021eko martxotik 2022ko uztaila bitartean garatu zen. Horren bidez, azken kontu-emateari erantzun nahi zaio, planaren ezaugarri orokorrei eta inpaktu-emaitza garrantzitsuenei buruzko informazio orokorra eman nahi da, sinatutako hitzarmenean ezarri zen bezala.

Txostena hiru ataletan egituratuta dago: testuinguru orokorra, emaitza globalak eta ondorioak, eta horietan laburbilduta jasotzen dira planaren ezaugarri orokorrak. Ondoren, eranskinen atal batean, hezkidetzari buruzko ikastaroaren eta genero-indarkeriari buruzko ikastaroaren ezaugarriak zehazten dira. Azken ikastaro hori bitan banatzen da: oinarrizko modulua eta espezializazio-modulua, bai eta horien emaitza bereizirik ere, lehen zatian garatutako azterketa osatzeko eta sakontzeko aukera ematen dutenak.





# Testuinguru orokorra



Emakumeen aurkako indarkeria matxistak giza eskubideen urraketa larria dakar. Hala ezartzen du bai 1979an onartu eta 187 herrialdek, (mundu mailan daudenen 96k) berretsitako emakumearen aurkako bereizkeria mota oro ezabatzeari buruzko NBERen Konbentzioak (CEDAW ingelesez)<sup>1</sup>, bai emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Istanbul, 2011), Espainiako Estatuak 2014an berretsia<sup>2</sup>.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 14. artikuluan ezartzen denez<sup>3</sup>, botere publikoek emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko neurriak hartu behar dituzte, bereziki kontuan izanda arrisku egoeran eta kalteberatasun egoera handiengan dauden emakumeak.. Bestalde, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriak buruzkoak, indarkeria matxistaren biktimak babesteko neurri zehatzak ezartzen ditu<sup>4</sup>.

Euskal Autonomia Erkidegoan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, ikerketa, prebentzioa eta prestakuntza sustatzeko agintzen dio Euskal Administrazio Publikoari, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, eta indarkeria horren biktimei arreta eta babes eskaintzeko<sup>5</sup>. Ildo beretik, 2018ko maiatzaren 19an onartutako Eusko Jurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak xedatzen du Euskal Administrazio Publikoko langileen prestakuntzarako eskumena duten erakundeak<sup>6</sup>.

Hizpide dugun Eusko Legebiltzarraren agindua, hain zuzen ere, konpromiso politiko orokor horien barruan dago. Helburu estrategiko komun bat duten bi prestakuntza-planen bidez gauzatu da: euskal administrazio publikoko profesionalek eguneroko lanean indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen prebentzioa, detekzioa eta arreta integrala hobetzea. Aztergai dugun kasuistika zehatzaren ondorioz, prestakuntzaren hartzaile nagusiak hezkuntza, osasuna, segurtasuna, gizarte zerbitzuak eta justizia izan dira.

Aginduaren dimetsioak direla eta, IVAPek UPV/EHUren laguntza izan zuen bera betetzeko. Ildo horretan, txosten honen hasieran aipatutako hitzarmenean ezarritakoa betez, UPV/EHUK plan biak diseinatu zituen, eta, dagokien kontrastea eta oniritzia jaso ondoren, 2021eko martxotik 2022ko ekainera bitartean garatu dira praktikan.

---

1 <https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/cedaw.aspx>

2 [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-5947](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-5947)

3 <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-6115>

4 <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2004-21760>

5 [http://noticias.juridicas.com/base\\_datos/CCAA/pv-l4-2005.html](http://noticias.juridicas.com/base_datos/CCAA/pv-l4-2005.html)

6 <https://www.emakunde.euskadi.eus/politicas-publicas/-/in-formacion/emakunde7plan/>



Zehatzago, txosten honetan *Indarkeria Matxistak: prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea prestakuntza-planaren* azken emaitzak aurkezten dira, Euskal Administrazio Publikoko profesionalentzat. Horrela, ekimen horren eraginaren ebaluazioa egiteko konpromisoari erantzuten zaio, iritzi itxi eta irekiko inkesten, arrakasta tasen eta elkarriketen bidez. Azpimarratu behar da deialdi bakoitzean ebaluazio partzial kuantitatiboak eta kualitatiboak egin direla, eta horiek informazioa eman dietela IVAPeko eta UPV/EHUko talde teknikoei, prozesuan zehar hobekuntzak sartzeko.

Plan hau egitura modular baten bidez diseinatu da, mailatan desberdindua eta online modalitatean:

**OINARRIZKO MODULUA.** Helburu izan du xede-kolektiboa sentsibilizatzea genero-indarkerien inguruko arazoetan, eta funtsezko ezagutzak ematea indarkeria-egoera horietan dauden pertsonak ulertzeko eta haiekin enpatizatzeke. Modulua bi ikastaroren bidez konfiguratu da, elkarrengandik independenteak, baina interesdun guztientzat irekiak. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikastaro bat (25 ordu, euskaraz eta gaztelaniaz), gehienez 1.500 parte-hartzailek parte har dezaketena, eta Hezkidetzari buruzko ikastaro bat (75 ordu, euskaraz, hezkuntza-arloko profesionalentzat), 1.000 parte-hartzaileentzat.

**ESPEZIALIZAZIO-MODULUA.** Helburua izan da indarkeria matxisten kasuetan esku-hartze publikoan zuzenean edo zeharka inplikaturik dauden profesionalen beharrei erantzutea, instantzia/zerbitzu sanitarioetatik, sozialetatik, hezkuntzatik, poliziatik edo judizialek. Kasu honetan ikastaro bakarra eskaini da: Emakumeen aurkako indarkeria: esku-hartze integrala eta sareko lana (50 ordu, gaztelaniaz). Izenak adierazten duen bezala, profesionalak elkarrekin eta modu integratuan jardun behar dute indarkeria-kasuetan, biktimen biktimizazioa eta babesgabetasuna saihesteko. Matrikulatzeko gaitasuna 200 profesionalakoa izan da.

Plana garatu den aldirian, lau deialdi ireki egin dira izena emateko, parte hartzeko eta deskribatutako oinarrizko prestakuntza modularra eta espezializaziokoa egiaztatzeko:


- Oinarrizko moduluaren 1. deialdia. 2021eko martxoa-maiatza. Emakumeen aurkako indarkeria ikastaroa (25 ordu/gaztelania) eta hezkidetzari buruzko ikastaroa (75 ordu/euskara)
- Oinarrizko moduluaren 2. deialdia. 2021eko maiatza-ekaina. Emakumeen aurkako indarkeria ikastaroa (25 ordu/euskara)
- Oinarrizko moduluaren 3. deialdia. 2021eko urria-abendua. Emakumeen aurkako indarkeria ikastaroa (25 ordu/gaztelania) eta hezkidetzari buruzko ikastaroa (75 ordu/euskara)
- Espezializazio-moduluaren 1. deialdia. 2022ko apirila-ekaina. Emakumeen aurkako indarkeria: esku-hartze integrala eta sareko lana ikastaroa (50 ordu/gaztelania).

# Emaitza orokorrak






Emaizta orokorrak, plan honen diseinuan ezarritakoaren arabera, prozesuan zehar modu iraunkorrean neurtuz joan diren adierazleen multzo honen bidez aurkezten dira.



**2. GRAFIKOA.** Indarkeria matxistak: prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea ikastaroko datu orokorrak

- (1.) Ikastaroan parte hartu dutenak (plataformara sartu, bideoak ikusi, ariketak egin...)
- (2.) Egin beharreko guztiak ondo burur dituztenak.
- (3.) Akreditatutakoak/aktibo daudenak x 100.
- (4.) Ordu teorikoen kopurua x akreditatuen kopurua.

Era berean, parte-hartzaileen prestakuntzarekiko gogobetetze faktoreari buruzko datuak aurkezten dira. Faktore horiek Transferentziaren Zeharkako Ebaluaziorako Faktoreen – FET galdera-sortaren bidez jaso dira, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Pilar Pinedaren taldeak estandarizatuta<sup>7</sup>.



### 3. GRAFIKOA. Gogobetetze Faktorearen emaitzak prestakuntzarekiko (Likert 0-5 eskalan)

<sup>7</sup> Pineda-Herrero, P., Quesada-Pallarès, C., Ciraso-Calí, A. (2020). Factores para la Evaluación indirecta de la Transferencia – FET. Universitat Autònoma de Barcelona. 7<sup>a</sup> edició



# Ondorioak



- I. Indarkeria matxistak: prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea izeneko prestakuntza-plana asmo handiko ekimen berria izan da, eragin handia izan du. Guztira lau deialdi egin dira hamabost hilabeteko epean, eta denera 1518 pertsonak hartu dute parte. Sentsibilizazio mailan, Euskal Administrazio Publikoko 1332 profesionalek hartu dute parte, eta 186k espezializazio moduluan. Osasun, hezkuntza eta segurtasun sektoreek izan dute interesik handiena prestakuntzan, gizarte zerbitzuek eta justiziak jarraituta, eta beste eremu batzuetako 66 profesionalek ere ikasle bezala jardun izan dute ikastaroetan.
- II. Plana asmo handikoa izan da ikaskuntzari dagokionez ere. Bai oinarrizko mailan, bai espezializazio mailan, ikastaroak online garatu dira eta gaitasun profesionalak garatzera bideratu dira, eta, kasu guztietan, ebaluatu eta kalifikatu diren zereginak egiteko eskatu zaie parte-hartzaileei. Beraz, ez dira soilik apuntatzea egiaztapenaren sinonimo den ikastaroak izan. Diseinu ezaugarri horiek eskakizun maila handia eskatu diete parte-hartzaileei, eta, arrakastatsuak izateko, denboraren kudeaketa ona eta benetako inbertsioa egin behar izan dute, ahaleginari dagokionez.
- III. Bete egin dira deialdien kopuruari buruzko aurreikuspenak: hezkidetza ikastarorako bi deialdi, oinarrizko mailarako hiru eta espezializatorako bat; hala ere, gauzatzeko epea sei hilabetez luzatu behar izan da, deialdi, hedapen eta matrikula prozedurak berak hasieran aurreikusitakoa baino denbora gehiago behar izan baitu.
- IV. Planak, oro har, 2.700 plaza betetzea aurreikusten zuen (1.000 hezkidetza ikastarorako eta Genero Indarkeriari buruzko ikastaroarekiko 1.500 oinarrizko mailarako eta 200 espezializazio mailarako). IVAPek matrikulatutako pertsonen kopurua kontuan hartuta, okupazioa % 65ekoa izan da. Hala ere, datuak banakatuz gero, emakumeen aurkako indarkeriei buruzko ikastaroak oso arrakastatsuak izan direla ikus daiteke; izan ere, plazen mugaren % 86,6 bete dute oinarrizko mailan eta % 98 espezializazio mailan. Hezkidetza ikastaroan, berriz, % 25,9koa izan da.
- V. Arrakasta tasa orokorra positiboa izan da. Ikastaroak hasi dituzten pertsona gehienek amaitu dituzte, eta azken balantzearen arabera, guztira 1.153 profesional akreditatu dira. Prestatzaile taldeak prozesu osoan kontuan izan du autozuzendutako online ikastaroek, oro har, bertan behera uzteko duten arriskua; izan ere, denboraren kudeaketa ona eta parte-hartzaileen autodiziplina maila handiagoak eskatzen dituzte horrelakoek. Ildo horretan, hobekuntzak egin dira jardueren diseinuan, askotan parte-hartzaileek iradokita, talde tutoretza eta webinar kopurua handituz eta, oro har, antzeman diren zalantza eta zailtasunei berehalako arreta eman. Hala ere, formatua ez da izan arrakasta tasetan eragin duen faktore bakarra. Ekainean eskola amaierako ebaluazioarekin bat egin duten ikastaroen datek eta, horretaz gain, pandemiak osasun arloan izan dituen ondorio zuzenek azaltzen dute zergatik ez den eman arrakasta tasa handigorik hezkuntzan edo osasunean.

- VI. Parte-hartzaileen batez besteko gogobetetze-maila 5etik 4,27koa da. Asko izan dira esker oneko iruzkinak, bai talde prestatzailearen lan zainduari eta arretatsuari buruzkoak, bai ikastaroen kalitateari buruzkoak.
- VII. Indarkeria matxisten espezializazio moduluak batez besteko balorazio apur bat txikiagoa du: 4.18koa, bostetik. Badirudi arrazoia eskatzen zuen dedikazioan (50 ordu) eta zereginaren konplexutasunean datzala. Parte-hartzaileek adierazitako iritzien arabera, ingurune birtual batean sareko koordinazio lana egitea lortzeak lanbide rolak ulertzeko ahalegin handia egitea eskatu du, eta rol horiek ez ziren beti argitzen, taldeetako kideen arteko harreman zuzenik ez zegoelako. Gehienek diote sareko laneko espezializazio prestakuntza batek saio presentzialak beharko lituzkeela, elkarrekintza zuzena, aurre egin beharreko egoeretan sakondu eta zorrotz ulertu ahal izateko.
- VIII. Espezializazio modulua, neurri handi batean, errealitatearen isla zuzena da. Agerian uzten du kanpoko esparruetan egiten den lanari buruz dagoen ezjakintasuna eta sareak ehuntzearen garrantzia, aurpegiak eta izenak jarritz, biktimari laguntza integrala eskaintzeko. Deialdi bakarra egin denez, ez da diseinua berregokitzeko modurik egon, baina sareko lan honetan dago, zalantzarik gabe, indarkeria matxisten esparruan arreta publikoa hobetzeko gakoetako bat.
- IX. Azken batean, planak bere helburuak modu zabalean bete ditu. Prestakuntza estrategia handia da, berritzailea planteamendu pedagogikoan, eta parte-hartzaileen interesa eta motibazioa piztu ditu. UPV/EHUK online prestakuntzako azpiegitura teknologiko guztia jarri du planaren zerbitzura, eta erabiltzaileei zuzeneko arreta eman die. Prestakuntza taldeek malgutasunez jokatu dute, taldeetan ikaskuntzaren errendimendu ona bermatu ahal izateko. Aurrerapen ildo gisa, azpimarratzekoa da espezializazio ekimenak areagotzeko beharra; izan ere, oraindik sareko lana erronka bat da indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko sistema osoarentzat.



# Eranskina

## Bereizitako txostenak

### **Oinarrizko maila:**

- 1. HEZKIDETZA: INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ESKU-HARTZEKO OINARRIAK**
- 2. EMAKUMEEN AURKAKO INDAKERIAKO OINARRIZKO IKASTAROA**

### **Espezializazio maila:**

- 3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA**



## FITXA TEKNIKOA

Ordu kopurua: 75

### HARTZAILEAK

**HEZKUNTZA:** Hezkuntza formaleko profesionalak (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza), hezkuntza planak eta pro gramak diseinatzen dituztenak eta/edo haur, nerabe eta gazteekin zuzenean lan egiten du tenak.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistema: irakasleak, ikasketaburuak, zikloko koordinatzaileak, pedagogia terapeutikoko langileak, ikastetxeko zuzendariak, jantokiko langileak eta eskolaz kanpoko jardueretako langileak. Hezkuntza ez-formalaren eta gizarte hezkuntzaren eremuak: adingabeentzako aisialdi begiraleak eta kirol jardueretako begiraleak. Adingabeei harrera egiteko zentroetan lan egiten duten profesionalak.

### IKASTAROAREN DESKRIBAPENA

Hezkuntzako profesionalen esku-hartzeak berebiziko garrantzia du gizonen eta emakumeen benetako berdintasuna sortzeko. Izan ere, berdintasuneko heziketan oinarritutako hezkuntza bat sistematizatzen ez bada, ikasleen gara pen integrala estereotipo sexisten eraginpean egongo da, estereotipo horiek nabarmen oztopatzen baitute berdintasunean hezteak. Berdintasunean hezteak, horrenbestez, lagungarria da: menderakuntza-mendekotasun eskeman oinarritutako harreman patriarkal oldarkorrek desikasten laguntzen du, eta, aldi berean, tratu onean oinarritutako harremanak sustatzen ditu, gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna, zaintza lanak eta garapen afektibo-emozionala bultzatzeaz gain. Berdintasunean hezteak genero ikuspegitik aztertzen du hezkuntzaren esparruan sortzen den guztia. Sexismoak kutsatzen duen guztia detektatu, eta paradigma aldaketarako proposamenak ze hatzak egiten ditu.

#### IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- Sexismoa identifikatzea eskola eta hezkuntza alorreko hainbat alderditan, eguneroko bizitzan, eta arazo hori eraldatzeko esku-hartzeko gai izatea.
- Berdintasuneko heziketaren baliabide teoriko-praktikoak aplikatzea, genero indarkeriak nola agerikoak hala ezkutukoak identifikatzeko eta prebenitzeko curriculumean, hezkuntza materialean, ikastetxean, irudikapenean, hizkuntzan eta elkarrekintza pertsonaletan.
- Hizkuntzaren erabilera inklusiboaren ga rrantzia onartzea eta praktikan jartzea.
- Berdintasuneko heziketan oinarritutako hezkuntza materialak bilatzea, identifikatzea eta erabiltzea, edo halako materialak sortzeko mekanismoak baliatzea.
- Ezkutuko curriculumak identifikatzeko, modu eraikitzailean kritikatzeko eta zuzentzeko edo, aitzitik, ordeztzeko gai izatea.
- Tratu onean sozializatzeari dagokionez, hobetzeko jarduerak eta berdintasunean hezteko ekintzak ezagutzea eta erabiltzea.
- Heteronormatibitatea gainditzeko eta pertsonen aniztasun sexuala eta afektibo-sexuala modu ez hierarkikoan aurkezteko estrategiak aplikatzea, aniztasun ororen aldeko diskurtsoa normalizatzeko eta pertsona guztientzat gune seguruak sortzeko.
- Berdintasunean hezteko esku-hartze bat planifikatzea gertuko ingurunean.

#### EDUKIAK

1. **Atarikoak.** Online modalitatea, berdintasunean hezteko eta prestakuntza moduluak dirauen bitartean konpromiso aktiboa hartu beharra.
2. **Hezkidetza.** Sexua-generoa sistema; emakumeen kontrako indarkeria; feminismoaren ekarpenak; eta berdintasunean hezteko hezkuntza arloan duen garrantzia. Gure inguruan emakumeak ikusarazteko gakoak.
3. **Emakumeen errealitatea.** Indarkeria matxisten, LGTBIQ+fobikoen, lodifobikoen eta abarren identifikazioa, eta horiei aurre egiteko estrategiak. Hizkuntza inklusiboa.
4. **Emakumeok eta emakumeon harremanak.** Aniztasun sexuala, hezkuntza afektibo-sexuala, zaintzak, erantzukidetasuna eta tratua ona.
5. **Agurra.** Konpromiso aktibo eta etengabea mantentzeko plangintza.

## 1. ERANSKINA

HEZKIDETZA: INDARKERIAREN  
PREBENTZIORAKO ETA ESKU-HARTZEKO OINARRIAK

### EBALUAZIOA

**Astean behingo kalifikazioa:** Foroko partaidetza, Entregagarria eta Galdetegia.

Foroko partaidetza eta entregagarria aldez aurretik ezarritako ebaluazio errubrika bati jarraiki kalifikatu dira. Galdetegia automatikoki zuzendu da (hiru saiakeratan ateratako emazarik onena).

### IRAUPENA

8 aste.

### PLAZA KOPURUA

Plazen muga kopurua: 1000. Bi deialdia. Martxoa-Maiatza eta Iraila-Abendua 2021.

### HIZKUNTZA

Euskara.

### PRESTAKUNTZA TALDEA

Urtza Garay, Amaia Chueca, Maitane Ortiz de Martioda eta Ane Zurutuza.



**EMAITZA OROKORRAK**

<b>MATRIKULAZIOA ETA AKREDITAZIOA</b>	
IVAPek matrikulatutakoak	259
Matrikulatu aktiboak (1)	229
Akreditatuko pertsona kopurua (2)	124
<b>SEKTOREKAKO AKREDITAZIOA</b>	
Hezkuntzan akreditatutako pertsona kopurua	113 (% 52,8)
Osasunean akreditatutako pertsona kopurua	2 (% 66.6)
Segurtasunean akreditatutako pertsona kopurua	1 (% 50)
Besteak	8 (% 80)
<b>EMAITZA OROKORRAK</b>	
Arrakasta tasa (3)	% 54,14
Akreditatuko batak besteko nota	9,35
Benetako orduak (4)	9.300
<b>GOGOBETETZEA</b>	
Batazbesteko asebetetzea (5etik)	4,3
<b>HIZKUNTZA</b>	
Euskaraz akreditatu diren ehunekoak	% 100

**1. TAULA.** Oinarrizko ikastaroaren emaitzak. Indarkeria matxistak: prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea

- (1) Ikastaroan parte hartu dutenak (plataformara sartu, bideoak ikusi, ariketak egin...)
- (2) Egin beharreko guztiak ondo burur dituztenak.
- (3) Akreditatutakoak/aktibo daudenak x 100.
- (4) Ordu teorikoen kopurua x akreditatuen kopurua.




## ANALISI OROKORRA

*Hezkidetza: indarkeriaren prebentziorako esku-hartzeko oinarriak* plan honek eskaintzen duen ikastaro exigenteena da. Berariaz hezkuntzako profesionalentzat pentsatuta dago, eta euskaraz bakarrik eman da. 75 orduko online lan pertsonala eskatzen du, eta eman daitezkeen zereginen bidez operatibo egiten da, ikasturtean zehar sekuentziatutako lan pertsonalaren ebidentzien bidez.

Egin diren bi deialdietan, 124 pertsonak amaitu dute ikastaroa, eta, horretarako, azken ataza aurkeztu dute, 8 testak erantzun % 80aren emaitza egokiekkin, modulu bakoitzeko lanak banatu dituzte eta foroetan parte hartu dute. Azken zeregina kalifikazioaren % 40 da, gainerako jarduerak % 60. Esan bezala, oinarrizko ikastaroa da, baina, aldi berean, dedikazioari dagokionez, zorrotza.

229 pertsona sartu ziren eGelapi plataforman. Hala ere, lehenengo 158 pertsonak modulua gainditu zuten, eta kopuru hori gutxituz joan da ikastaroak aurrera egin ahala, azken lana entregatu duten 124 pertsonengana iritsi arte, eta, beraz, ikaskuntzaren emaitzak lortu direla egiaztatu dutenak izan dira azken horiek. Egiaztatutako pertsonen batez besteko nota 9,35 da (9,3 lehenengo deialdian eta 9,4 bigarrenean) eta arrakasta tasa % 54,14koa.



#### 4. GRAFIKOA. Zereginekiko akreditazioen bilakaera

## 1. ERANSKINA

### HEZKIDETZA: INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ESKU-HARTZEKO OINARRIAK

Talde prestatzailearekin eta parte-hartzaileekin egin diren ebaluazio kualitatiboek errendimenduaren pixkanakako jaitiera horretan eragina izan duten hainbat arrazoi aipatzen dituzte. Alde batetik, online modalitateak berak eskatzen die parte-hartzaileei beren ikasketa denboren kudeaketa eraginkorra eta nolabaiteko autodiziplina; nahiz eta landu beharreko edukiak oinarrizkoak izan diren askotan parte-hartzaileek ez dute kalitatezko denborarik izan zereginak egiteko, eta ezin izan dute ikastaroaren erritmoa jarraitu, zereginak entregatzeko datak malgutu diren arren. Bestalde, testuinguru-zailtasunak antzeman dira. Pandemiak ikastetxeen eguneroko funtzionamenduan eragin nabarmena izan duen aldian garatu da plana; irakasleek beren praktika egokitu behar izan dute eta ustekabeko egoera askori aurre egin behar izan diete, eta horrek kalte egiten dio horrelako prestakuntza jardueretan kalitatezko denbora eskaintzeari. Era berean, ikasturtearen amaiera inguruko datek eta oposaketen deialdiak eragina izan dute matrikulazio baxuan eta parte-hartzaile jakin batzuen uztean.

*Hezkuntzan lan egiten dut eta eskolako praktikan formakuntza hau interesagarria eta oso baliagarria iruditu zait. Hala ere, ardura eta bete behar asko izaten ditugu eskola maila, gero eta gehiago. Ardura asko hartzen ditugu gure gain, eta ilusioz lan egiten dugu. Baina formakuntza eta denbora behar dugu. Lan orduetatik at, nire eskolako lanari eta formakuntzari denbora asko eskaini behar izan diet, bizitza pertsonala alde batera utziz. Badakit denbora tarte bat izan dela, baina luze egin zait (Participante/Hezkidetza/3).*

*Lanetik kanpo ordu asko sartu behar izan ditudan arren, ez naiz damutzen. Askok ikasi dut. Eskerrik asko! (Participante/Hezkidetza/2)*

Zailtasunak zailtasun, parte-hartzaileek oso balorazio positiboa egin dute ikastaroari buruz, eta batez besteko kalifikazioa bostetik 4,31koa izan da.

Bost item erabili dira gogobetetze-maila kalkulatzeko, eta emaitzak oso konbergenteak dira. Ekarpenean kualitatiboak ildo beretik doaz: ikastaroan erabilitako jardueren eta materialen prestakuntza balioa azpimarratzen dute, eta, aldi berean, hori aurrera ateratzeko egin behar izan duten ahalegina adierazten dute.

#### Bataz besteko gogobetetzea 4,31

Parte hartu dudana prestakuntza gustatu zait	4.42
Prestakuntza interesgarria izan da	4.39
Prestakuntza eramangarria izan da	4.3
Prestatzaileak lan ona egin du	4.15
Pozik nago jasotako prestakuntzarekin	4.31

## 2. TAULA. Hezkidetza ikastaroko gogobetetzea

## 1. ERANSKINA

### HEZKIDETZA: INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ESKU-HARTZEKO OINARRIAK

Amaitzeko, sektorekako intzidentziari buruzko azken oharra. Hezkidetza: indarkeriaren prebentziorako esku-hartzeko oinarriak ikastaroa berariaz diseinatuta dago hezkuntzako profesionalentzat, eta, beraz, arlo horrek askoz ere presentzia handiagoa du. Hala ere, segurtasunetik, osasunetik eta beste sektore batzuetatik datozen 15 pertsonak parte-hartze aktiboa izan dute prestakuntzan. Nabarmendu behar da, oro har, hezkuntza-eremutik kanpoko pertsonak arrakastaz burutu dutela ikastaroa, eta arlo horretako 4 pertsonak bakarrik izan direla ikastaroa amaitu ez dutenak.

*Landutako edukiak oso interesgarriak eta baliagarriak iruditu zaizkit. Gogoeta sakonak eta lan dexente egin dugu baina egunerokotasunean eta gure bizitzaren arlo guztietan eragina izango du: lanean, familian, lagunekin izandako solasaldietan... Aisialdian, aukeratutako musika eta irakurketetan... Merezki izan du!!!!*  
(Participante/Hezkidetza/3)

Arrakasta tasari dagokionez, hezkuntza arloko profesionalen artean gorakada ikusten da lehen deialditik bigarrenera, zehatzago, % 54,61etik % 72ra. Aldea, neurri handi batean, datei zor zaie. Adierazi dugun bezala, lehenengo deialdiaren azken zatia bat etorri zen ikastetxeen azken ebaluazioarekin, eta horrek zailtasuna ekarri zuen ikastaroa eta lan profesionala uztartzeko.

SEKTOREAK	MATR.AKTIBOAK	AKREDITATUAK	ARRAKASTA TASA
HEZKUNTZA	214	113	% 52,8
OSASUNA	3	2	% 66,6
SEGURTASUNA	2	1	% 50
BESTEAK	10	8	% 80

### 3. TAULA. Sektorekako emaitzak

Ondorio orokorra da parte-hartzaileek oso modu positiboan balioetsitako kalitate edukia duen oinarritzko ikastaroa dela, baina hezkuntzako profesionalen lan baldintza eta erritmoekin bat datorren ezarpena eskatzen duela. Parte-hartzaileen gaitasun eta ohitura digitalak, jarduerak lantzeko kalitate denborak, lan jarduera eta online prestakuntza bateratzeko aukera emango duten data egokiak aukeratzea kontuan hartu behar dira, kolektiboa erakartzeko eta prestakuntzan arrakasta izango dutela bermatzeko baldintza hobek sortzeko.

## FITXA TEKNIKOA

Ordu kopurua: 25

### HARTZAILEAK

**HEZKUNTZA:** Hezkuntza formaleko profesionalak (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza), hezkuntza planak eta pro gramak diseinatzen dituztenak eta/edo haur, nerabe eta gazteekin zuzenean lan egiten du tenak.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistema: irakasleak, ikasketaburuak, zikloko koordinatzaileak, pedagogia terapeutikoko langileak, ikastetxeko zuzendariak, jantokiko langileak eta eskolaz kanpoko jardueretako langileak. Hezkuntza ez-formalaren eta gizarte hezkuntzaren eremuak: adingabeentzako aisialdi begiraleak eta kirol jardueretako begiraleak. Adingabeei harrera egiteko zentroetan lan egiten duten profesionalak.

**OSASUNA:** larrialdietako zerbitzuak eta osasun mentaleko zentroak.

**JUSTIZIA:** auzitegiko medikuak, auzitegiko gizarte-langileak, talde psikosozialak eta familia-elkarguneen arduradunak.

**GIZARTE ZERBITZUAK:** oinarrizkoak, hala foru aldundietakoak eta Administrazio Oroko- rrekoak.

**SEGURTASUNA:** indarkeria matxistetan espezializatutako unitateak, nola zentralak hala lokalak.

### IKASTAROAREN DESKRIBAPENA

Indarkeria hori, dituen forma guztietan, conti nuum sozial eta historiko bat izan da, eta continuum horrek gizarte ordena jakin bat ahalbi detu du, non emakume kategoria oro eta beraz, emakume gisa sinbolizatutako gorputzari dagokion guztia hertsatuta, zapalduta eta mendean jarrita ikusten den. Bost izan dira eta, oraindik hala dira, indarkeria horri eustea legitimatu dituzten mekanismo nagusiak: naturalizatzea (indarkeria biologiak definitutako izaera arazo bat dela pentsatzea); ikusezin bihurtzea (indarkeria existitzen dela ukatzea eta ez aipat- zea); normalizatzea (argudiorik behar ez izatea eta genero rola kategoria naturalizat jotzea); justifikatzea (emakumeak erruduntzat jotzea eta arazoa kanpoko arrazoibideei egozte); eta minimizatzea (arazoa funtsezkoa ez dela pentsatzea eta arazoaren larritasuna ez islatzea).

Mekanismo horien atzeraelikaduraren bidez gauza asko lortu dira, besteak beste, indarkeria matxista sexismotik bereiztea, hau da, indarkeria gertakari polizial eta judizial huts gisa aztertzea, eta genero desberdintasuna, berriz, arazo soziologiko gisa; horrenbestez, bi kontzeptu horien arteko loturaren gakoak lausotzea. Ikastaro honetan kontuan hartzen da emakumeen kontrako indarkeria matxista ezin dela bereizi aukeren, baliabideen eta posibilitateen desparekotasunean eta sexua-genero sistema bitar eta baztertzaille batean oinarri tutako gizarte batetik kanpoko elementu gisa. Prestakuntza modulu honek hainbat ikuspuntu planteatzen ditu, ikasle bakoitzak, ikuspegi zabal bat izan, eta interesik handiena sortzen dioten alderdietan sakondu dezan, betiere oinarrizko premisa batean oinarrituta: emakumeen kontrako indarkeria errealitate eztabaidea dela, funtsean, justizia sozialeko gaia; izan ere, biztanleriaren erdiaren eskubideen urraketa sistematikoari erantzuna ematea eta bestearen pribilegioak zalantzan jartzea izan da helburua. Guzti-guztiori axola zaigun zeregina da.

#### IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- Genero indarkeriaren jatorri, adierazpide eta ondorioen gaineko oinarrizko ezagutzak eskuratzea.
- Zuzeneko indarkerien ezaugarriak bereizten ikastea, baita esperientzia traumatikoak emakumeen osasunean dituen ondorioetan eragina duten faktoreak ere.
- Ezagutzen ditugun genero indarkeriako kasuak egoki maneiatzeko baliabideak eta trebetasunak identifikatzea.
- Genero indarkeriarekin lotutako legeriari, legeriak eskaintzen dituen laguntza eta babesei eta dauden zerbitzu eta baliabi deei buruz izan behar diren ezagutzak barneratzea.

#### EDUKIAK

1. Emakumeen aurkako indarkeriaren arazora hurbiltzen dira parte hartzaileak ikastaro honetan: esparru kontzeptuala, testuinguru historikoa, tipologia, ezaugarriak, datu eguneratuak, indarkeriaren zikloa, biktimologia.
2. Indarkeria matxistak gizarte arazo gisa aztertzen dira, alderdi hauei erreparatuta: erasoen inguruabarrak, indarkeriaren iraupen eta ugaritze faktoreak eta aro berrietara zer-nola egokitzen diren.
3. Genero indarkeria gizarte arazo oso larria dela eta emakumeen, adingabeen eta kolektibo ez-normatiboen osasunean ondorio larriak dituela erakusten du. Halaber, ezagutzera ematen ditu indarkeriaren adierazpide guztiak, indarkeria horiek ukitzen dituzten pertsona guztietan zer ondorio dituen erakusten du, eta indarkeria horiek batik bat biktiman eta biktimaren taldean dituen ondorioei buruz hausnartzen du, erasotzailea edo erasotzaileak kontuan hartuta.
4. Gainera, baliabide pertsonalen eta unibertsitatean, udalerrietan eta EAEn genero indarkeria prebenitu eta detektatzeko dauden baliabideen, zerbitzuen eta laguntzen ezagutza areagotzen du.

#### EBALUAZIOA

Eduki teorikoak bost gaitan egituratuta daude. Gai bakoitza honako elementu hauek osatzen dute:

**Unitate bakoitzeko eduki teorikoa.** Ekarpene teorikoa, gaia sakon landuta, 20-30 orrialde artekoa, aurkezten duenak egina.

**Dokumentazioa.** Unitate didaktiko bakoitzak dagokion bibliografia du. Horrez gain, gai bakoitzean beharrezko diren baliabideak ere erabili dira (artikuluak, bideoak, albisteak...).

**Parte hartzeko foroa.** Gai bakoitzean foro bat ireki da. Foro horretan artxibo eta dokumentuak partekatu dira.

**Testa.** Ikasitakoa baloratzeko, unitate didaktiko bakoitzaren bukaeran ezagutza proba bat egin da. Test hori ezinbestean gainditu behar izan da hurrengo unitate didaktikora igarotzeko.

**Azken lana.** Amaierako lana: amaierako lan bat egin da, 400-800 hitz artekoa.



#### IRAUPENA

6 aste.

#### PLAZA KOPURUA

Plaza kopuru muga: 500.

Hiru deialdia burutu dira: martxoa-maiatza, maiatza-ekaina eta urria-abendua 2021.

#### HIZKUNTZA

Gaztelera eta euskara.

#### PRESTAKUNTZA TALDEA

Aitziber Bañuelos (koordinatzailea), Leire Imaz, Izaskun Zarrandikoetxea, Nerea Barrón eta Ianire Subinas.



## EMAITZA OROKORRAK

MATRIKULAZIOA ETA AKREDITAZIOA	
IVAPek matrikulatutakoak	1300
Matrikulatu aktiboak (1)	1103
Akreditatuko pertsona kopurua (2)	843
SEKTOREKAKO AKREDITAZIOA	
Hezkuntzan akreditatutako pertsona kopurua	131 (% 81,36)
Osasunean akreditatutako pertsona kopurua	355 (% 79,95)
Gizarte Zerbitzuetan akreditatutako pertsona kopurua	67 (% 82,72)
Justizian akreditatutako pertsona kopurua	71 (% 87,65)
Segurtasunean akreditatutako pertsona kopurua	161 (% 88,9)
Besteak	58 (% 53,21)
EMAITZA OROKORRAK	
Arrakasta tasa (3)	% 76,43
Akreditatuko batak besteko nota	8,73
Benetako orduak (4)	21.075
GOGOBEETZEA	
Batazbesteko asebetetzea (5etik)	4,36
HIZKUNTZA	
Euskaraz akreditatu direnen ehunekoa	% 20,28

## 4. TAULA. Emakumearen aurkako indarkeriako oinarriko emaitza orokorra

- (1) Ikastaroan parte hartu dutenak (plataformara sartu, bideoak ikusi, ariketak egin...)
- (2) Egin beharreko guztiak ondo burur dituztenak.
- (3) Akreditatutakoak/aktibo daudenak x 100.
- (4) Ordu teorikoen kopurua x akreditatuen kopurua.

## ANALISI OROKORRA


*Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko oinarrizko ikastaroa* gai horri buruzko prestakuntza orokorra da. Oro har, parte-hartzaileak arazoarekiko sentsibilizatzea eta aurretiazko azterketarako gakoak ematea du helburu.

Oso ikastaro irisgarria eta eskuragarria da, 25 orduko dedikazioa du, eta ikasleek, bideoak ikusi eta materiala irakurri ondoren, galdetegi bat bete behar izan dute ikasgaia osatzen duten bost gaietako bakoitzean. Deialdi bakoitzean hiru tutoretza sinkrono egin dira, zalantzak argitzeko; plataforman grabatuta geratu ziren. Era berean, prestakuntzak iraun duen bitartean foroak beti egon dira irekita. Online ikastaroa bada ere, antolatzaileak une oro saiatu dira parte-hartzaileak aurrez aurre egon daitezzen, aurpegiak jar ditzaten eta prestakuntza taldearekin harreman zuzena izan dezaten. Parte-hartzaileek oso positibotzat jo dute etengabeko laguntza hori.

Ikastaroak izaera masiboa izan du, planean lortu nahi zen hedapen eta sentsibilizazio ideiarekin bat etorritz. 1.000 pertsona baino gehiago aktibo egon dira, eta 843k maila horretako gaitasuna egiaztatu dute. Ikastaroaren profil eskuragarriak eta bideratzaileak eragin positiboa izan du hiru deialdien batez besteko arrakasta tasan, % 76,43koa izan baita. Tasa hori % 70etik gorakoa izan da hiru deialdietan, eta datu hori azpimarragarria da; izan ere, autoarreta jasotzen duten online ikastaroek % 50eko batez besteko arrakasta tasa izaten dute.

Parte-hartzaileen zereginak test motako bost probaren bidez ebaluatu dira. Proba horietan, gutxienez, % 80ko erantzun zuzen eskatu dira, eta azken ataza bat aurkeztu da. 3. grafikoan deialdi bakoitzeko zereginen garapena jasotzen da. Guztietan ikusten da dinamika iraunkorragoa dagoela test motako probetan, eta azken jardueran beherakada txiki bat izan dela, parte hartzaileek gehiago landu eta lan egin behar izan dutelako.

*Gracias al curso he sido consciente, sobre todo, de la discriminación que se ejerce a través del lenguaje. En el resto de cuestiones he sido consciente siempre. No he tenido tiempo suficiente, para poder visualizar y leer todo el material recomendado adicionalmente, pero he tomado nota y lo iré haciendo. (Participante/Básico/1).*



5. GRAFIKOA. Zereginekiko akreditazioen bilakaera

Egiaztatutakoen batez besteko kalifikazioa 8,73koa izan da (9,09 lehenengoan, 7,83 bigarreanean eta 9,27 hirugarrenean). Parte-hartzaileen gogobetetze mailak 4,36ko batez besteko puntuazioa du bostetik, eta faktore hori osatzen duten bost itemek oso balio konbergenteak dituzte.

#### Batazbesteko gogobetetzea 4,36

Parte hartu dudan prestakuntza gustatu zait	4.42
Prestakuntza interesgarria izan da	4.44
Prestakuntza eramangarria izan da	4.29
Prestatzaileak lan ona egin du	4.37
Pozik nago jasotako prestakuntzarekin	4.30

5. TAULA. Espezializazio ikastaroarekiko gogobetezea

Ebaluazio galdetegian eta atolarakuntzan jaso diren mezuetan adierazitako oharrek datu kuantitatiboak berresten dituzte. Oro har, ikasleek adierazitakoa positiboa izan da, tutoreen prestasuna eta lan ona azpimarratuz, eta horrek, zalantzarik gabe, balio erantsia ekarri dio edukiari.



Sektorekako parte-hartzea egokitzen joan da hiru deialdietan. Osasun arloak izan du presentzia handiena, askotariko lanbide-profilekin: zeladoreak, medikuak, erizainak, administrariak edo laborategiko teknikariak izan dira ikasleen parte. Justizia eta Gizarte Zerbitzuen sektoreek hasiera diskretua izan zuten, baina bigarren jarraipen txostenean hobekuntza neurriak adierazi ziren, eta emaitza onak eman dituzte. Azken deialdiko parte-hartzea 8tik 53ra (% 562) igo zen Justizian eta 13tik 43ra (% 230) Gizarte Zerbitzuetan.

Sektore guztietan arrakasta tasak oso handiak izan dira, Justizia eta Segurtasuneko zenbaketa orokorra nabarmenduz, bi kasuetan ia % 90era iritsiz. Arrakasta tasarik txikiena Osasunean lortu da; hala ere, online ikastaro batean ia % 80 inguru izatea positiboki azpimarragarria da. Sektore horretan, pandemiaren eragina egiaztatu da, eta ziur aski, kasu batzuetan, ikastaroaren garapena eta bititza profesionala ezin uztartzeko arrazoia hori izan da.

*Este ha sido para mí un curso de crecimiento personal. He comprendido una realidad que me toca de cerca pero que no conocía tan profundamente. Lo considero un curso que abre los ojos que capacita a las personas para que tengan un juicio crítico y así poder cambiar la realidad. He recomendado este curso a todo el mundo. Para mí ha sido un regalo y estoy muy agradecida . (Participante/Básico/2).*

SEKTOREAK	MATR.AKTIBOAK	AKREDITATUAK	ARRAKASTA TASA
HEZKUNTZA	161	131	% 81,36
OSASUNA	444	355	% 79,95
JUSTIZIA	81	71	% 87,65
GIZART.ZERBITZUAK	81	67	% 82,72
SEGURTASUNA	181	161	% 88,95
BESTEAK	109	58	% 53,21

#### 6. TAULA. Sektorekako emaitzak

## 2. ERANSKINA

### EMAKUMEEN AURKAKO INDAKERIAKO OINARRIZKO IKASTAROA

Laburbilduz, esan dezakegu oinarrizko sensibilizazioaren helburua behar bezala bete dela. Parte-hartzea oso zabala izan da, eta, nahiko aurretiazko prestakuntza den arren, eman eta kalifikatu behar diren jardueretan oinarrituta egoteak ezagutza bereganatzearekin eta ikastearekin lotzen ditu pertsonak. Sarbide ona da asmo handiagoko prestakuntza helburuei heltzeko; zuzeneko lotura duten edo esparru horrekiko interes intrintsekoa eta benetakoa duten pertsonentzako.

*Creo que este curso lo deberían de hacer todas y todos los trabajadores de Osakidetza indistintamente del puesto que desempeñen dentro de la empresa ya que: por un lado, el trato al paciente mejoraría y, por otro lado, teniendo en cuenta que el porcentaje de mujeres trabajadoras es mayor que el de hombres seguro que cada mujer puede identificar situaciones tanto profesionales como personales que poder mejorar o cambiar (Participante/Básico/3)*



## FITXA TEKNIKOA

**Ordu kopurua: 50**

### HARTZAILEAK

Osasuneko, Hezkuntzako, Justiziako, Gizarte Zerbitzueetako eta Segurtasuneko profesionalak, indarkeria matxisten kasuetan zuzeneko esku-hartzea dutenak (edo izan dezaketenak) euren kargu.

Ikastaro honetan matrikulatzeko, gaindituta eduki behar izan dute emakumeen kontrako indarkeriari buruzko oinarriko ikastaroa, edo akreditatu espezializazio modulua zuzenean egiteko behar diren gaitasunak dituztela.

### IKASTAROAREN DESKRIBAPENA

Ikastaroaren helburua da esku-hartzearen alorreko profesionalak esku-hartze horri modu integralean heltzeko behar diren tresnak ematea. Hori lortzeko, lehen eskutik ikasi dute parte hartzaileek gaur egun Euskal Administrazio Publikoak indarkeria matxistei zer-nolako erantzuna ematen dien eta zer erronka, baliabide eta premia dituen. Diagnostiko hori egiteko, duela gutxiko benetako kasuak analizatu dira, profesionalak jarraitu beharreko prozedura gertutik aztertzeko baliagarria izan baita analisi hori. Gainera, egun administrazioek eman ohi duten erantzunaren azterketa eta haren premien diagnostikoa Administrazioari hobekuntza proposamenak egiteko baliatu dira, baita zenbait eremutako profesio nalen arteko lankidetzak lana sustatzeko ere.

### IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- Indarkeria matxistako kasu batean esku-hartzeko beharrezkoak eta egokiak diren baliabideak identifikatzea eta erabiltzea.
- Administrazioak esku-hartzeari ekiterakoan eman ohi duen erantzunean dauden premiak detektatzea.
- Dauden baliabideak hobetzea, jarduteko prozedura berrien bitartez.
- Profesionalen artean sarean esku-hartzea eta lankidetzak sustatuko duten elkarguneak antolatzea.
- Emakumezko biktimari entzuteko gaitasunak eskuratzea.

### 3. ERANSKINA

#### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA

#### EDUKIAK

Esku-hartzeko eremu bakoitzean egiten diren prozedurak zein diren ezagutu du parte hartzaile bakoitzak; hala, Administrazioak indarkeria matxistako kasuei eman ohi dion erantzunaren ikuspegi orokorra izan da. Emakumearen kontrako indarkeria detektatu ondoren (familia, osasun zentroa, lantokia, aisialdi jarduera, gertuko taldea), sarrera puntu bat baino gehiago izanik, esku-hartu behar duen profesionalak emakumea babesteaz arduratzen diren egiturak ezagutu behar dira, baita esku-hartzeko modurik egokiena zein den ere, eta, hori kontuan izanik, malgutasunez eta lasaitasunez egokitu behar da egoera zehatz bakoitzera. Bereziki, osasun, segurtasun, justizia eta gizarte zerbitzuetako sareek ontzi komunikatuak ireki behar dituzte emakumezko biktimari laguntzeko egin beharreko esku-hartzean. Prozedurak hobetu egin behar dira, bereziki, prozedura judiziala. Funtsezkoa da indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei entzutea: giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ebaluatzea, arreta indibidualizatu eta kalitatezkoari heltzeko. Biktimizazioa ez berritzeko jarraibi deak zehaztu behar dira.

Horretarako, esku-hartzearen alorrean adituak diren profesionalen eskutik, benetako kasuak hainbat alderditatik aztertu dira, premiak detektatu dira eta sareko lana biltzen duten prozedura berriak proposatu dira.

#### EBALUAZIOA

- Ikastaroaren egitura modularra izan da: ezagutza teknikoen galdetegiak modulu bakoitzaren amaieran eta gainditu beharreko atazak entregatzea.
- Parte-hartzaileak 10-15 pertsonako diziplinarteko taldeetan banatu dira eta lanerako gune birtualak sortu dira. Talde gisa, kasu praktiko baten ebazpena entregatu dute. Amaieran, esku-hartzea berritzeko proposamen bat aurkeztu dute. Hori guztia errubrika baten arabera ebaluatu da.
- Era berean, ikastaroko foroan aktiboki parte hartzeko eskatu da, iritziak, esperientziak eta materialak trukatu.

#### IRAUPENA

10 aste.

#### PLAZA KOPURUA

Deialdi bakarra 200 pertsonako mugarekin. Apirila-Ekaina 2022.

#### HIZKUNTZA

Gaztelera.

#### PRESTAKUNTZA TALDEA

Aitziber Bañuelos (Koordinatzailea), Leire Imaz, Katixa Etxebarria, Bea Ilardia, Izaskun Zarrandikoetxea eta Garazi Arraibi.

## EMAITZA OROKORRAK

<b>MATRIKULAZIOA ETA AKREDITAZIOA</b>	
IVAPek matrikulatutakoak	196
Matrikulatu aktiboak (1)	186
Akreditatuko pertsona kopurua (2)	151
<b>SEKTOREKAKO AKREDITAZIOA</b>	
Hezkuntzan akreditatutako pertsona kopurua	44 (% 70,45)
Osasunean akreditatutako pertsona kopurua	53 (% 80,02)
Gizarte Zerbitzuetan akreditatutako pertsona kopurua	29 (% 89,65)
Justizian akreditatutako pertsona kopurua	8 (% 100)
Segurtasunean akreditatutako pertsona kopurua	52 (% 80,77)
<b>EMAITZA OROKORRAK</b>	
Arrakasta tasa (3)	% 81,18
Akreditatukoena batz besteko nota	8,33
Benetako orduak (4)	7.550
<b>GOGOBEETZEA</b>	
Batazbesteko asebetetzea (5etik)	4,18
<b>HIZKUNTZA</b>	
Euskaraz akreditatu diren ehunekoa	% 0

## 7. TAULA. Espezializazio ikastaroko emaitzak

- (1) Ikastaroan parte hartu dutenak (plataformara sartu, bideoak ikusi, ariketak egin...)
- (2) Egin beharreko guztiak ondo burur dituztenak.
- (3) Akreditatutakoak/aktibo daudenak x 100.
- (4) Ordu teorikoen kopurua x akreditatuen kopurua.



## ANALISI OROKORRA

*Emakumeen aurkako indarkeria: esku-hartze integrala eta sareko lana* ikastaroa espezializazio prestakuntza bat da, eta xede-kolektibo gisa eremu espezifiko batetik esku-hartzearekin lotura zuzena duten profesionalak ditu. Agerikoa bada ere, gutxieneko gaitasun maila eskatzen da arlo honetan, plan honen oinarritzko ikastaroa edo esperientzia egiaztatuta. Gainerako ikastaroetan bezala, IVAPek aukeratu ditu eskatzaileak, barne mekanismo propioak ditu plazak esleitzeko eta eskabideak kudeatzeko. Unibertsitatea, besterik gabe, IVAPek emandako zerrendarekin hasten da lanean.

Espezializazio modulua zorrotza da. Helburua da parte hartzen duten profesionalak indarkeria kasuetan beren esku-hartzeaz haratago gertatzen denaz jabetzea, prozesuaren osotasunaren ikuspegia eraikitzea eta osotasunean ulertzea. Azken batean, sareko lanerako gaitasunak garatzea bilatzen du, eta, esku-hartzearen eraginkortasuna hobetzea, birbiktimizazio arriskua gutxieneko mailara eramanez.

Espezializazio ikastaroa exigentea izan da, bai estaldurari dagokionez, bai barne fakturari dagokionez. Plazen muga 200koa izan zen; 196 IVAPen matrikulaziotik bete ziren, eta 186 Unibertsitateko plataforma birtualean aktibatu ziren; beraz, espezializazio-modulua izan da eraginkorra atxikitzeari dagokionez. Hori bat dator espezializatu nahi duen profesionalaren profilararekin, interes pertsonal edo laboralen bat duelako. Barne diseinuari dagokionez, ikastarorako dedikazioa 50 lanordukoa eta errealekoa izan da, material profesional eta espezializatuen irakurketa eta ikaskuntza, galdetegiak, kasu praktikoak eta sare lana egituratzeko helburua duten zereginak bezalako jardueretan.

Garrantzitsua da aipatzea espezializazio modulua behin bakarrik eskaini dela, ez zela alde aurretik pilotatu, eta, beraz, prozesua denbora errealean ebaluatuta soilik egin ahal izan direla doikuntzak. Horregatik, funtsezkoa da hemen aurkezten ditugun ondorioak kontuan hartzea espezializazio moduluen etorkizuneko edizioei begira.

*El contenido de este curso me ha resultado más útil que otros de temática similar que he realizado. Del primer módulo me quedo con los diferentes recursos existentes en diferentes niveles (hasta ahora; no los conocía) y del segundo, la guía de Osakidetza ha venido a resolver distintos aspectos de mi trabajo (Participante/Especialización/1)*

### 3. ERANSKINA

#### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA

Lehenengo modulua kasu praktiko batetik bideratu zen: bideo bat bistaratzea, araudia irakurtzea, biktimei arreta emateko dauden baliabideak aztertzea eta galdera-sorta bati erantzutea, amaiera gisa. Ikasle batzuk, bai lehen tutoretzan, bai mezu eta dei desberdinetan, adierazi zuten ez zirela gai izango galdetegi onartzeko, araubideari dagokionez materiala gehiegizkoa zelako. Prestakuntza espezializatu mota honetan funtsezkoa da aurretiazko ezagupenen eta espero diren ikaskuntza emaitzen arteko doikuntza, baina, edonola ere, araudia ezagutzea funtsezkoa eta ezinbestekoa da. Horregatik, prestakuntza taldeak lasaitasun mezu bat helarazi zuen, eta gogorarazi zuen ez zela beharrezkoa material guztia buruz ikastea, baina bai irakurri eta ulertzea, hurrengo modulura igaro ahal izateko.


Ondoren, bigarren moduluan, ikasleak eremuka banatu ziren, eta tutoretzak antolatu ziren sektore bakoitzeko indarkeria matxistetako espezialistekin. Lehenengo moduluan bezala, kasu honetan ere kasu praktiko bat ebaztea eta galdetegi bat gauzatzea izan dira ebaluatu diren atazak. Parte-hartzaileek beren esparrua zehatz mehatz ezagutu ondoren, hirugarren moduluan sareko lana burutu da. Horretarako, diziplina anitzeko 12 lantalde antolatu dira, hainbat eremutatik kasu praktiko bati osorik heltzeko. Hori izan da atalik konplexuena bai ikasleentzat bai talde prestatzailearentzat, koordinazioa oso zaila delako, eta are gehiago ingurune guztiz birtualean.

Azkenik, laugarren moduluan zeregin bat eman da. Bertan, eguneroko lanaren zailtasunak antzeman dira biktimari arreta integrala emateko, eta, gutxienez, bi hobekuntza-proposamen egin dira.

Prozesu osoan zehar, hainbat tutoretza egin dira eta zuzeneko 12 webinars, grabatuta geratu direnak gero ikusteko. Halaber, foroak uneoro egon dira zabalik. Prestatzaile-taldeak etengabe aztertu du prozesua, taldeari lana erraztuko dioten hobekuntza-neurriak hartzeko.

Ikastaroa konplexua izan arren, inbertitu beharreko orduak eta online koordinazioaren zailtasuna direla eta, arrakasta tasa oso handia da, % 81,18ra iritsi baita, hau da, 151 pertsonak amaitu dute ikastaroa. 4. grafikoan ikus daitekeenez, jaitsiera handiena lehen moduluen garapenean gertatu zen. Modulu horrek emakumeen aurkako indarkeriaren arloan indarrean dauden araudia eta erregulazioak aztertzea eskatzen zuen. Hasierako ikaskuntza hori gainditu zuten parte-hartzaileak ia prozesua amaitu arte mantendu dira, eta arrakastaz amaitu dute.

*De antemano daros las gracias por haberme dado la oportunidad de participar en el curso. Se me ha hecho bastante complicado seguir el curso, teniendo en cuenta por un lado que trabajo y no he podido conectarme por ello a ninguna de las charlas que se han dado... Una lástima, la verdad. Por otro lado, me ha parecido que había muy poco tiempo de margen, a nada que te despistas un poco se te pasa el plazo de realizar las actividades. Por lo demás muy bien, creo que va a servir para ganar autonomía y seguridad en mi puesto de trabajo y voy a poder ayudar de una mejor manera a mis pacientes. Un abrazo enorme. (Participante/Especialización/2).*



#### 6. GRAFIKOA. Zereginekiko akreditatuko garapena

Gogobetetzearen batez bestekoa bostetik 4,18koa da, eta hori oso positibotzat hartu behar da horrelako prestakuntza batean. Izan ere, xede taldea talde espezializatu bat denean, igurikimen handia eta espezifikoa du, gai konplexuei erantzuna aurkitzea espero baitute; kasu honetan, gainera, ez gara xede kolektibo batez ari, diziplina anitzeko prestakuntzari aurre egin behar dioten bost kolektibo profesional oso ezberdinez baizik. Askotariko jakintza horien topaketa, sektore anitzeko elkarrizketa eta erantzunak aurkitu nahia tentsio-puntuak dira modulu honetarako. Faktorea osatzen duten itemak, ordea, nahiko konbergenteak eta lautik gorakoak dira, salbu eta formazioa eramangarria izan da 3,7 punturekin baloratu dena.

*El formato online me ha parecido muy complicado, sobre todo a la hora de elaborar el trabajo. Muy complicado compaginar vida laboral, familiar y la formación fuera del horario y tener en cuenta los plazos de entrega en base a las aportaciones del foro. Además, teniendo en cuenta que venimos de diferentes ámbitos y que realmente creo que no hemos llegado a entender bien cómo funcionan el resto de ámbitos, ya que el feedback en el foro no ha sido del todo enriquecedor. Se pierde mucho, habría sido más interesante una formación presencial. Las sesiones sí me han parecido más interesantes y clarificadores, pero también creo que hubieran aportado más presencialmente.*

(Participante/Especialización/3)

### 3. ERANSKINA

#### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA

##### Batazbesteko gogobetetzea 4,18

Parte hartu dudana prestakuntza gustatu zait	4,3
Prestakuntza interesgarria izan da	4,4
Prestakuntza eramangarria izan da	3,7
Prestatzaileak lan ona egin du	4,3
Pozik nago jasotako prestakuntzarekin	4,2

#### 8. TAULA. Emakumearen aurkako indarkeriako espezializazio ikastaroko gogobetetzea

Testu izaerako eta ekarpen kualitatiboan analisiak interpretatzeko bidea ematen digu, gogobetetzea handia den arren, badagoela deialdi honetan erabat konpondu ez den zailtasun elementu bat, sareko talde lanaren esperientziarekin zerikusia duena. Hainbat pertsonak adierazi dute 12 talde multiprofesionalen dinamika egiteko lan presentziala behar dela, online modalitateak gehiegi mugatzen baitu berez oso konplexua den jarduera bat.

Azkenik, sektorekako parte-hartzean, kopuru handiena Osasunari dagokio, eta, horren atzetik, oso gertutik, Segurtagunari. Bestalde, 8 bakarrik matrikulatu dira Justizian; hala ere, guztiek amaitu dute prestakuntza, eta % 100eko arrakasta tasa lortu dute esparru horretan. Hezkuntza arloan lortu dute parte hartzaileek arrakasta gutxien (% 70,45). Gure ustez, Hezkidetzako ikastaroaren lehenengo deialdian gertatu bezala, data eta ikastetxeen ebaluazioak bat etortzeak zerikusia izan du. Oraingoan, ez da beste eremuetako ikaslerik egon. Pertsona guztiak Hezkuntzaren, Osasunaren, Justiziaren, Gizarte Zerbitzuen eta Segurtagunaren esparruetakoak izan dira, eta hori koherentea da eskatutako profilarekin..

SEKTOREAK	MATR.AKTIBOAK	AKREDITATUAK	ARRAKASTA TASA
HEZKUNTZA	44	31	% 70,45
OSASUNA	53	44	% 80,02
JUSTIZIA	8	8	% 100
GIZART.ZERBITZUAK	29	26	% 89,65
SEGURTASUNA	52	42	% 80,77
BESTEAK	109	58	% 53,21

#### 9. TAULA. Sektorekako emaitzak

### 3. ERANSKINA

#### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA

Ondorioz, esan dezakegu espezializazio helburua oso modu egokian bete dela. Parte-hartzeak, kuantitatiboki, izandako aurreikuspenak bete ditu, eta prestakuntzaren kalitateak ez du zalantzarik uzten parte-hartzaileek eta prestatzaile taldeak adierazi dutenetik. Hala ere, prestakuntza behin bakarrik egin izanak aukerak kendu dizkio moduluaren doikuntzari. Edizio berriak egongo badira, asko zaindu behar dira sarbide profila, diziplina aniztasuna eta, batez ere, online modalitatea modalitate hibrido bihurtzeko aukera, lan saio presentzialekin uztartutako online saioekin.





**IKERTUZ**

Ikerketa lanak  
Trabajos de investigación

**INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS**

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU  
argitaletxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus  
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao  
Tfn.: 94 601 2227 • [www.ehu.eus/argitalpenak](http://www.ehu.eus/argitalpenak)

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea